



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

## ARETO FUTBOLEKO EUSKAL BATZORDEA

2007/08DENBORALDIA

### 12 ZIRKULARRA

#### ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGA ERREGULATZEKO ARAUAK

**LEHENENGOA.**- 2007/08 denboraldiko ARETO-FUTBOLEKO EUSKAL LIGAn Zirkular honetan agertzen diren arauak berriaz aginduko dute, federazioaren ordenamendu juridikoa osatzen dutenei kalterik egin gabe.

**BIGARRENA** Jokoaren arauak FIFAk argitaratuko ditu.

**HIRUGARRENA** Euskal Ligako partidu guztiak "PUMA" V1.06 Gorria, modeloko baloi ofizialarekin jokatu beharko dira derrigorrez.

Partidua hastean, etxeko taldeak 5 baloi izan beharko ditu gutxienez. Horietatik, 2 arbitroarentzat izango dira, eta beste 2 kanpoko taldearentzat.

Xedapen hau betetzen ez duen klubak Lehiaketako Epailearen zigorra jasoko du.

**LAUGARRENA.**- Taldeek partidua hasteko ezarritako ordua baino ordu erdi lehenago aurkeztu beharko dira jokalekuan. Ordu erdi lehenago ere aurkeztu beharko zaizkio lizentziak epaileari, eta kronometratzailea.

Jokalekuan ezin izango da egon bestelako jarduerarik partidua hasi baino hamabost minutu lehenago, kanpoko taldeak berotze-ariketak egin ditzan.

**BOSGARRENA.**- Partidua hasi ahal izateko talde bakoitzak gutxienez bost jokalaria eta taldeko ordezkari bat aurkeztu beharko ditu jokalekuan. Bestalde, etxeko taldeak zelaiko ordezkaria izan beharko du derrigorrez, eta behar bezala identifikatuta egon beharko da, bi arbitroen esanetara.

Behar hau ez bada betetzen dagokion jurisdikzio-organoak ez-agertutzat hartuko du.

**SEIGARRENA.**- Areto-futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoak zuzenduta, dagokion lurralde Batzordeak izendatutako epaile batek eta kronometratzaile batek arbitratuko dute partida.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

**ZASPIGARRENA.**- Partiduak 20 minutuko bi zati izango ditu. Bi zatiak kronometratuko dira, eta gehienez 10 minutuko atsedena egongo da.

**ZORTZIGARRENA.**- Arbitroei ordainsariak ordaintzeko beharra ez bada betetzen, Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplinazko Erregimenaren Arautegiaren 58. eta 73. artikuluek aurreikusitako zigorrak ezarriko dira.

**BEDERATZIGARRENA** .- parte hartzen duten taldeak aipatzen diren hurrengoak dira ALEGRIA CD, ARTAROMO DF, ESKORIATZA KE , EUSKALDUNA SD, GOIERRI KE, EUSKAL SOFA INTER, KANIKAS, KENCI, KUKUIAGA ETXEBARRI, LA BELLOTA, LAGUN ONAK FS, ASTRABURUKO FS, SASIKOA CD "B", SUISACO ARMENTIA, TRANSPORTES LAKUNZA, UPV ALAVA,

**HAMARGARRENA.**- Lehiaketa-sisteman talde bakarra dago, puntutara eta joan-etorriko partiduekin. Guztira hogeita hamar jardunaldi izango dira.

**HAMAIKAGARRENA.**- Partiduak jokatzeko eguna, ordutegia eta jokalekua partiduaren aurreko asteko ostiralaren 19:30ak baino lehen jakin beharko du Federazio honek. Halaber, partiduaren aurreko asteazkenaren 22:00ak baino lehen jakinaraziko zaio aurkako taldeari. Partiduak hasteko ordutegiak ondorengo denbora-tartean artean egongo dira:

Larunbate: 15,45 – 20,00 Ord

Igandeak:10,00 – 13,00 y 16,00 – 18,00 Ord.

Halaber, Lurralde bereko klubak artean jokatzeko partiduei dagokienez, jakinarazten da ostiraletan jokatu ahal izango direla, betiere bi taldeak ados badaude. Partidua hasteko ordutegia ondorengo denbora-tartean egon beharko da:

Gipuzkoa : 20,30 a 21,30 Ord.

Bizkaia y Alava : 19,30 a 21,00- Ord.

Klub guztiek dute ezarritako partiden ordutegi ofizialak aldatzeko eskumena, betiere aurkako taldea ere ados badago, eta Aretu-futboleko Euskal Batzordeko Idazkaritzari idatziz jakinarazten badiote partiduaren aurreko asteko ostiralaren 19:30ak baino lehen. Aldaketa jasotzen duen dokumentuak klub bakoitzaren zigilua eta sinadura izan beharko ditu.

Aldaketa horrek eragozpenak sortzen dituenez arbitroengan, zelaiaren jabeak diren klubek 12 € gehiago ordaindu beharko diete.

Eskaera ez bada idatziz egiten, edota adierazitako epearen barruan ez bada egiten, eskatutako ordutegi aldaketa ezeztatuko da.



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACION VASCA DE FUTBOL

Azken jardunaldiko partiduak egutegian finkatutako larunbateko 18:00ean hasiko dira guztiak, emaitzak azken sailkapenean eragina badu.

**HAMABIGARRENA -** **Kategoria honetan parte hartzen duten klubek, gutxienez, monitorearen lizentzia izan beharko dute, eta partidu guztietan aurkeztu beharko dute.**

**HAMAHIRUGARRENA** Lehiaketa honetan aginduko duten gainerako arau arautzaileak, eta Zirkular honetan jaso ez direnak, Espainiako Futbol Errege Federazioaren Arautegian jasotakoak izango dira.

Bilbo 2007 irailak 19



JON ANDER GAMBOA AGUIRRE  
Secretario General